

HERRI MUSIKAREN 1. JARDUNALDIAK

Oiartzun, 2002-11-30, 12-01

Dakizuenez, jadanik martxan dugu herri musika kontzertuen antolaketa eta proposamen honek zuen aldetik izan duen harrera ona ikusirik, bide horretatik jarraituko dugula zalantzarik ez dugu.

Baina oraingoan beste ekintza mota proposatzera gatozkizue. HERRI MUSIKA JARDUNALDIAK. Hauek herri musikaren alde ezagunak eta ezezagunak aurkezteko eta ezagutzeko, herri musika inguruan eztabaida orokorra sortzeko eta bideratzeko, bultzatzeko eta herri musika biziaren alde ekiteko antolatu nahi ditugu.

Urtean behin eta edizio bakoitza herri musika gai baten inguruan antolatzeko asmoa dugu.

1. Jardunaldietarako bertsolaritzaren aurreko gaiarekin zerikusia duen "Herri musika bertso munduan" **aukeratu dugu. Antolaketa taldea jadanik martxan dago eta Herri Musikaren Txokoarekin batera Oiartzungo Bertso Eskola eta beste taldeak nahiz herri musika zaleak ari dira antolaketa lanetan.**

Herri musika bertso munduan

2002-11-30, larunbata.

Goizeko 10.00-14.00 / Arratsaldeko 16.00-18.00. Arritxulo aterpetxeko aretoan:

Bertsolaritza herri musikaren altxorra, biltegi, sortzaile, eragile,... mintegihitzaldia-solasaldia-etzabaidaren bitartez. Hizlariak: Joanito Dorransoro,...

Arratsaldeko 19.00. Udaletxeko Areto nagusian:

Bertso Doinu Emanaldia: Euskal Herriko bertso musika ezberdinak kokapen geografikoan oinarriturik; Ekialdea (Zuberoa), Erdialdea (Gipuzkoa-Oiartzun), Mendebaldea (Bizkaia). Gure joera jarraituz, Euskal Herriatik kanpoko ordezkariak ere izango dugu. Horretarako Galiziako "regaifero" talde batekin kontaktatu dugu.

Berri hau egitasmo honen aurrerapena besterik ez da, epe motzean egitarau zehatzaren berriak ezagutuko dituzue. Baina informazio gehiago beharko bazenute jarri zaitezte harremanetan gurekin, telefonoz edo e-postaz.

MARTXA ONEAN JARRAITZEN DU BISITARI KOPURUAK

Azken hilabete hauen bisiten datuak (oraingo honetan batuta ematen dizikizuegu udako hilabeteenak, hots, uztaila, abuztua eta irailari dagozkionak, sasoi honek ezaugarri bereziak baitauzka) ondorengoak dira:

Bisitarien kopurua: 328. Antolatutako taldeak: 7

HERRI MUSIKAREN TXOKOA

Tornola kalea, 6 / 20 180 OIARTZUN

Tel / Fax (9) 43 49 35 78

herrimusika@herrimusika.org // www.herrimusika.org



HERRI MUSIKAREN TXOKOA

BERRIAK

2002ko iraila

3. zkia

OIARTZUNGO BERTSO ESKOLAREKIN LANKIDETZAN

Aspaldikoa da Oiartzungo Bertso Eskolarekin harremanetan eta elkar laguntzeko asmotan ari garela. Horrela, HM Txokoa inaugurazio ekitaldian bertan izan genuen eskola honetako ordezkariak parte zuzena harturik, "Auzokalte" elkartearen antolatutako herri afarietan elkarrekin parte hartzea, Inauterietako herri bazkarietan, Auzoko festetan, ...

Bertsolaritzaren alde musikala dugu elkartzeko gaitun gaia. Alde biok garbi ikusten dugu bertsolaritzan musikak izan duen eta duen garrantzia, bai bertsoa musikarekiko zein musika bertsoarekiko ere. Bestalde, azken garaioan bertsolaritzak arlo askotan gora egin badu ere, musikaren egoera, maila eta erabilera orokorrak jasan duen behar handia dela eta kezkatu gaude.

Hori dela eta, gai horretan oinarriturik, orain HM Txokoa eta Oiartzungo Eskolaren artean lankidetzan egiteko egitasmo handia eta zabal bat aurrera atera nahian ari gara. Oinarrian gai bat izanik, hiru ataletan banatu dezakegu lankidetzan egiteko sortu den egitasmo



Kontzertu ondorengo afalondoko giroa

Goiko argazkian ikus dezakizuen ez duen musikak falta izan. Udazkenekoan ere 12 eurotan gorde dezakezu zure tokia.

hau:

HM Txokoak antolatzen dituen Herri Musika Kontzertuetarako bertso zaharren kantuekin osatutako emanaldiak prestatzea. Bertso zahar, bertso doinu eta kantu bilketa gai honetaz zer eman edo eskaintzeko duen Oiartzungo Bailarako jendearekin.

Oiartzungo eskolan ari diren bertsolari berrien artean musika interpretazio formakuntza.

Gaur asmo besterik ez diren hauek elkarlanean gauzatuko direla espero dugu eta emaitzak lortu heinean jakinaren gainean izango zaituztegu.

Kontzertuak Txokoan

udazkeneko kontzertua

2002ko urriaren 19, larunbata, arratsaldeko 6,30etan

HERRI MUSIKAREN TXOKOAREN terrazan, Oiartzun-Ergoien auzoa. (Eguraldi txarra egingo balu ondoko "Auzokalte" elkartearen aretoan egingo genuke)

Hirugarren kontzertu honetarako Euskal herri musika aldetik Baztango Xulubitariak txistulari taldea eta kanpokoaren partetik Valentziako Josemi Sánchez eta Antonio de la Asunción bikotea aukeratu ditugu. Baztandarrek Nafarroako bailara horretako txistularien errepertorio aberatsaren aurkezpen zabala eskeiniko digute. Valentziako bikoteak inguru hartako akordeoi diatonikoa eta dolçaina-tabal taldeen mota eta estilo ezberdinetako doinuak aurkeztuko dituzte.

Josemi Sánchez eta Antonio de la Asunción

Josemi Sánchez, dolçaina eta akordeoi diatonikoa.

Azken belaunaldiko dolçainer-en artetik maila handienetakoa eta soinu-tresna hau berpiztearen arduraduna izan zen Joan Blasco irakasle zeukala, Valentziako Udal Eskolan hasten ditu bere ikasketak 70 hamarkadaren bukaeran. Bakarleri bezala ez ezik dolçaina eta tabal beste taldeekin ere aritu da: La Inestable, La Xala, El Cudol, Sonadors de la Guaita. Dantza taldeekin (Alimara, Aldarull, Trapig, Salpassa) eta folk taldeekin (Al Tall, Urbàlia Rurana, Solcavents) ere ibili da. Gaur egun Sonadors de la Guaita musika taldearen burua da. Halaber dolçaina eta tabal -a erakusten ditu zenbait eskoletan. Escuela de Música Tradicional La Xafigà de Muro-n berriz akordeoi diatonikoko ikaslea da, Cati Plana eta Carles Belda irakasleak direlarik.

1985tik hona Valentziako Generalitatearen egitasmoa den Fonoteca de Materials-eko koordinazio lantaldeko partaidea da. Dagoeneko bilduma honetan badira 30 ale argitaratuta, Valentziako tradizioetik hartutako grabazio zuzenekin osatuta.

Antonio de la Asunción, tabal.

Dolçaina eta tabal-a jotzeaz gain E.S.O. irakaslea da. Dolçaina ikasketak Valentziako Udal Kontserbatorioan bukatu ditu Xavier Richarten ikaslea eta irakasle habilitazioa Federació Valenciana de Dolçainers delakoak eman dio. Dolçaina-z gain tabal-a ere erakusten du zenbait eskoletan. El Cudol dolçainers taldea zuzentzen badu ere beste taldeekin ere aritzen da sarritan: La Inestable, La Xala, Sonadors de la Guaita; dantza,

antzerki eta animazio taldeekin ere bai. Dolçaina-rako musikagilea ere bada, bi sari jaso dituelarik: *Mención de Honor* (2000. urtea) eta *Primer Premio* (2001 urtea) *Premios de Composición pa Dolçaina Vila de Muro*-ko le-hiaketan.

EGITARAUA

Akordeoi diatonikoari buruzko erreferentziak oso urriak dira Valentzian, nahiz eta tresna hori egin da bertan (*El Cid* marka) beste tokietarako (Catalunya kasu). Horren arrazoia beste musika talde moten indarrean datza ziur aski: soka taldeak, dolçaina eta tabal taldeak eta batez ere musika bandak. Emanaldiaren lehenbiziko partean diatonikorako moldatutako errepertorioen ale gutxi batzuk entzungo ditugu: : *l'Agredolç* (mazurka), *Jota de Xátiva*, *Dos i quinze*, *Danza de El Villar*, *Petenera*.

Dolçaina eta tabal-a berriz, Valentziako tradizioan soinu-tresna garrantzitsuenetakoa ditugu, nahiz eta ez izan beti gaur egungo joera eta errekonozimendua. Kontzertuaren bigarren atalean beraz, dolçaina-ren errepertorio eta sail jato-reneko doinu ezberdinak entzungo ditugu: albadak, prozesioetako doinuak, kalejirak eta dantza solteak (*dansá*, jota, fandango, *bolero* eta *seguidilla*). Guzti hau hango musika talde tradizionalenarekin: dolçaina bat tabal batekin.



BAZTANGO XULUBITARIAK



Javier Larralde Ustaritz (75 urte) txistularia
Juan Miguel Iriarte Antxorena (40 urte) atabalaria

Patxi Larralde Elizalde (36 urte) txistularia
Julian Elizalde Elizalde (43 urte) atabalaria

Xabier Durruti Sukilbide (26 urte) txistularia
Mikel Ortega Arraztoa (23 urte) txistularia
Oskar Fernandez Belmonte (31 urte) atabalaria
Iñaki Obregozo Istilart (26 urte) atabalaria
Jose Javier Indabere Otxandorena (25 urte) txistularia

BAZTANGO XULUBITARIAK orain zenbait hamarkadetatik honat, Baztango herri eta xoko guztietan barna jotzen ibili den herri-musika taldea da. Taldean, usaiari jarraikiz bidenazka (txistulari eta atabalari) jotzen duen bikote finko bat dago. Halaberean bai usaiari jarraikiz -bidenazka- edo bai taldean -banden gisa- jotzen ahal duen txistulari eta atabalari belaunaldi berria dago.

Gehien bat Baztan eta inguruko herrietan jotzen dute, bestetan, inauterietan, eta bertze zenbait gertakizunetan: gorazarreak, pilota partidak,..... Txistulariek Baztango dantzak ezagutzen dituzte eta haraneko herrietan txistua jotzen eta Baztango dantzetan erakusten dute.

EGITARAUA:

"Txistua eta atabala Baztanen"

Baztango musika folklorea erakusten den emanaldia da. Alta, kontutan hartu behar da, soinu haueetan dantzek duten garrantzia: erri-tozeremoniazko dantzak, jostaketa dantzak eta berriagoak diren bertze zenbait fandangoa eta porrusalda (arin-arin) bezala. Ezkontz-eztaietako soinuak ere aditzen ahalko dira.

1. Aunitz urtez! Bertze hainbertze! (agurra)
2. Ardoaine, Añar Haundi, Tellarin (Mutil dantzak)
3. Katadera dantza (Jostaketa dantza)
4. Amaurko sagardantza (Inauteko dantza)
5. Fandango
6. Porrusalda
7. Biribilketa
8. Eztai soinu
9. Xoxuaine (Mutil dantza)
10. Soka dantza
11. Zurrume dantza (Jostaketa dantza)
12. Arizkongo sagardantza (Inauteetako dantza)
13. Erratzuko sagardantza (Inauteetako dantza)
14. Ioiak (Eztaietako soinua)
15. Urtsuko kantua
16. Koko dantza
17. Ozkorri
18. Fandango
19. "Rau, Rau, Rau" (Porrusalda, arin-arin)
20. Biribilketak (suite)